

## **2012-12-18ko EZOHIZKO UDALBATZA**

Iruran, bi mila eta hamabigarren urteko abenduaren hemezortzian, arratsaldeko 19:30ean, udaletxeko udalbatza-aretoan, batzar ohizkoa egin du Udalbatzak, Ainhoa Ugalde Gorostiaga alkatea buru duela.

-Azaldu diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar, Ainara Mugica Iruretagoyena, Tomas Etxeberria Sarasola eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Noelia Lataburu Ortiz, Gorka Murua Macuso, Josu Yurrita Loitegui.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Javier Izaguirre Gomez.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkariak egin ditu idazkari lanak.

Alkateak irekitzat jo du saio publikoa; segituan, eta haren baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egitea badagoela, Toki Erregimeneko Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Eraentza (Erregimen) Juridikoaren Erregelamendua onartzen dituenak, agindutako gutxieneko partaide-kopurua bertaratu baita.

### **LEHENBIZIKO GAIA**

**UDALBATZAREN AZKEN AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2012-11-27).** 2012ko azaroaren 27ko ohiko saioaren aktaren zirriborroa aurkeztu da, eta aho batez onartu da.

### **BIGARREN GAIA**

**ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.** Alkateak honako dekretuen berri eman dio Udalbatzari:

2012ko 176. zenbakitik 184. zenbakira bitartekoak.

## HIRUGARREN GAIA

### ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, UDALEKO 2012KO AURREKONTUAREN BIGARREN KREDITU-ALDAKETA ESPEDIENTEA.

Udal honen 2012ko ekitaldiko aurrekontuaren 2. kreditu aldaketaren berri eman dute.

Era berean, Kontu Orokorretako, Aurrekontuko eta Administrazioiko batzorde informatiboak erabaki du aldeko iritzia ematea, gaur bertan egindako bileran.

Udalbatzak aho batez honakoa erabaki du:

Lehen.- Behin-behineko izaeraz onartzea 2. kreditu aldaketaren espedientea, udal honen 2012ko ekitaldiko aurrekontuaren barruan. Honela laburbilduko litzateke kapituluka:

A) Gastuak handitzea: 20.000€	
- 2. kapitulua.- Gastu Orokorrak:	10.000€
- 6. kapitulua.- Inbertsioak:	10.000€
B) Finantzaketa:	20.000€
Kapitulua	
1. Pertsonala:	- 10.000€
4. Transferentzi arruntak:	- 5.000€
9. Amortizazioa:	- 5.000€

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea 15 lanegunetan zehar Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren bitartez, erreklamazioak aurkez ditzaten. Inork erreklamaziorik aurkezten ez badu, onartutzat joko da behin betirako.

Halaber, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu beharko da espedientearen laburpena kapituluka.

Erabaki hau izapide-egintza da.

## **LAUGARREN GAIA**

### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2013. URTEKO APARTEKO ORDAINSARIEI BURUZKO NEURRIAK.**

Eztabaida izan ondoren, gaia mahairen gainean utzi da aho batez.

## **BOSGARREN GAIA**

### **ONARTZEA, HALA BADAGOKIO, 2012. URTEKO HERRIKO JAIEN LIKIDAZIOA.**

2012ko herriko jaien gastuen Likidazioa aurkeztu du idazkari kontu-hartzailearen txostenak.

Era berean, Kontu Orokorretako, Aurrekontuko eta Administrazio Batzorde Informatiboak erabaki du aldeko iritzia ematea, gaur bertan egindako bileran.

Hori ikusita, udalbatzak aho batez onartu egin du.

Hau behin betiko erabakia da administrazio bidean.

## **SEIGARREN GAIA**

### **IRURAKO UDAL ZERBITZU TELEMATIKOETARA SARBIDEA IZAN ETA ERABILTZEKO ERREGELAMENDUAREN HASIERAKO ONARPENA, HALA BADAGOKIO.**

Administrazio elektronikoen zerbitzua emateko ezinbestekoa da onartzea Irurako Udal Zerbitzu Telematikoetara sarbidea izan eta berau erabiltzeko baldintzen araudi bat.

Para la prestación del servicio de administración electrónica es imprescindible aprobar un Reglamento regulador de las condiciones de acceso y utilización de los Servicios Telemáticos del Ayuntamiento de Irura.

Era berean, Kontu Orokorretako, Aurrekontuko eta Administrazio Batzorde

Así mismo esta propuesta ha sido informada favorablemente por la Comisión Informativa de Cuenta

Informatiboak erabaki du aldeko iritzia ematea, gaur egindako bileran.

Hori dela eta, Udalbatzak aho batez hartu du honako erabaki hau:

Lehena.- Hasierako onarpena ematea lehen aipatu dugun Araudiari.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, eta interesdunei audientzia ematea, 30 egun balioduneko epean.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik edo iradokizunik ez badago, akordioa behin betikotzat joko da, eta indarrean dagoen legedia beteko da.

Akordio hau izapidezko egintza da.

General, Presupuestos y Administración, con fecha de hoy.

Ante ello, la Corporación acuerda por unanimidad de los presentes, lo siguiente:

Primero.- Aprobar inicialmente el citado Reglamento.

Segundo.- Someter el expediente al trámite de información pública y audiencia a los interesados por el periodo de 30 días hábiles mediante Anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Tercero.- En el caso de que no se hubiese presentado reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo y se procederá de acuerdo con lo señalado en la legislación vigente.

Este acuerdo es un acto de trámite.

## ZAZPIGARREN GAIA

### GIPUZKOAKO ODOL EMAILEEN DIRU-LAGUNTZAREN ESKAERA.

Gipuzkoako Odol Emaileen Irurako Ordezkaritzaren diru-laguntza eskaera ikusita, udalbatzak aho batez erabaki du 300 euroko diru-laguntza ematea eta ordaintzea.

Akordio hau behin betikoa da administrazio bidean.

## ZORTZIGARREN GAIA

**GALDE-ERREGUAK.-** Ez dago galde erregurik.

Aztertzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 20:05ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta, idazkari gisa, dena EGIAZTATZEN dut.

ALKATEA

IDAZKARIA